

JAKINARAZTEN DA Alkateak, 2025eko urriaren 31an honako Dekretu hau eman duela:

“Bergarako Udalak LANBIDEko enplegua bultzatzeko programaren baitan Laboratorium museoko erdi mailako teknikari bat kontratatzeko deialdia egitea onartu zuen.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta eta aurkeztutako dokumentazioa azterturik,

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA: Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda hau onartzea:

Onartuak:

IZENA ETA ABIZENAK
JMU
SLG
IIO
JSB

Ohartarazten da, oinarrietan jasotakoari jarraituz, ondorengoak direla bete beharreko ezinbesteko baldintzak:

A) Lanbidek eskatutakoak:

1. Langabezia-egoeran egotea eta Euskal Enplegu Zerbitzuan langabetu gisa izena emanda egotea.
2. 2024ko Lanbideko programaren bidez edozein udalekin kontratatua egon ez izana.
3. Kontratatutako pertsona Debagoienari dagokion eremu geografiakoan bizi beharko da

B) Bergarako Udalak ezarritako baldintza hauek betetzea:

Formazioa: Unibertsitateko diplomatura edo gradu-titulua edo baliokideak izatea.

4. Euskara Hizkuntza (C2) ezagutzari dagokion euskara-maila izatea, derrigorrezkoa. Maila hori duten izangairik ez balego, 3. Euskara Hizkuntza (C1) ezagutzaridagokion euskara maila duen izangaia onartuko da.

Hori horrela, jakinarazten da titulazioa edota gainontzeko dokumentazioa egiaztatzea eskatu ahal izango zaiela prozesuko edozein momentutan (eta betiere indarrean egon behar direla eskaerak aurkezteko epearekiko), eta aurkeztuko ez balute prozesutik baztertuak izango dira. Lanbidek eskatutako baldintzak zinpeko aitoren bidez egiaztatzea eskatuko da.

Onartutako eta baztertutako izangaien behin behineko zerrendaren erabakia honen aurka erreklamazioetarako 3 eguneko epea ematea, erabaki hau udaleko web-orrian argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

Erreklamaziorik ez badago, besterik gabe, behin betikotzat joko dira goian jasotako onartu eta baztertutakoen zerrendak.

Erreklamaziorik balego, beste ebazpen baten bidez erabakiko da eta udaleko web-orrian eta udaleko iragarki-taulan argitara emango da.

BIGARRENA: Honako epaimahai kalifikatzailea izendatzea:

Lehendakaria	Rosa Errazkin Arrazau	Museoko arduraduna
Bokalak	Zaloe Bernal Darcy	Kultura aldi baterako teknikaria
	Goretti Andrinua Iraolagoitia	Idazkaritzako AOT
	Sonia Rodriguez Rodriguez	Aldi baterako museo teknikaria
	Iñigo Agirre Imaz	Enpresa komiteko kidea
	Ane Albisu Arsuaga (Euskara proba)	Euskara Zerbitziburua
Idazkaria	Xabin Juaristi Arrieta	Idazkaria

HIRUGARRENA: Oinarrietan ariketa honen baitan jasotzen de, lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasuna neurtzeko proba **2025eko azaroaren 11an egitea, goizeko 9:00tatik aurrera, ordu erdiro deituko dira izangaiak, Bergarako Laboratorium museoa.**

Hautagai guztiek batera egin ezin dituzten ariketetan, zozketa bidez erabakiko da esku hartzeko ordena; Herri Administrazioetarako Estatu Idazkaritzak egindakoa da zozketa hori, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zozketa honen arabera, jakinarazten da parte hartzeko hurrenkera hasiko dela lehen abizena "U" letraz hasten direnetatik eta ondoren alfabetikoki.

Hori horrela, ondorengo ordutegian deitzen dira izangaiak:

IZENA	ABIZENAK	Ordua
I	IO	9:00
S	LG	9:30
J	MU	10:00
J	SB	10:30

Gogorarazten da esandako lekuan eta ordurako bertaratzen ez diren izangaiak prozesutik kanpo geldituko dira.

LAUGARRENA: Erabakia udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratzea.”

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan
IDAZKARIA



EKS | CSV: ESKU0c436a40-4736-43f8-8a36-176a72766da2

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410>